

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

5.000 haur baino gehiago onartu dira hasiera batean Nafarroako 0-3 urte arteko 101 ikastetxeetan

Onartutakoen behin-behineko zerrendak ostegun honetan argitaratu dira

Jueves, 08 de mayo de 2014

5.000 haur baino gehiago onartu dira hasiera batean Nafarroako 0-3 urte arteko 101 ikastetxeetan, Nafarroako Gobernuak eta Foru Komunitateko udalek ostegun honetan argitara eman dituzten 2014/2015 ikasturterako izen-emateko behin-behineko datuen arabera.

Gizarte Politiken Departamentuaren eta Iruñeko Udalaren esku dauden haur-eskoletan onartutakoen zerrenda Nafarroako Gobernuaren [zerbitzu-katalogoan](#) kontsulta daiteke, eta gainerako ikastetxe publikoetakoak, berriz, dagozkien eskoletan argitaratu dira.

[50/2014 Ebazpenak](#) ezartzen duenaren arabera, orain erreklamazioak aurkezteko denboraldi bat zabalduko da maiatzaren 14ra arte. Onartutakoen behin betiko zerrenda maiatzaren 23an emango da ezagutzera eta matrikula maiatzaren 23tik 30a bitarte egin beharko da.

Behin-behineko datuak

Hezkuntza Departamentuak dituen behin-behineko datuen arabera, 4.900 haur inguru onartu dira Nafarroako udal-titulartasuneko 94 haur-eskoletan. Eskola horietan 590 bat familia daude itxarote-zerrendan eta 316 plaza hutsik.

Bestalde, 235 haur onartu dira Gizarte Politiken Departamentuaren esku dauden 0-3 urte arteko zazpi ikastetxeetan. 18 plaza hutsik daude eta 157 familiak osatutako itxarote-zerrenda dago eskola horietan sartzeko; guztira 253 plaza eskaintzen dituzte eskola horietan.

Behin-behineko izaera duten zifra horiek alegazio eta matrikulen aldian zehar egokituko dira pixkanaka.